

## Euskara batzordeak ikastaroa antolatu du zelan idatzi testu zientifikoak euskaraz

2009/11/11

HUHEZIKo **Euskara batzordeak** ikastaroa antolatu du **azaroaren 12an eta 13an**, zelan idatzi testu zientifikoak euskaraz. Irene Arraratsek emango du ikastaroa, **Berria** egunkariko Euskara Taldeko buruak, eta ikasle izango ditu tesiak eta artikulu zientifikoak idazten ari diren irakasleak eta, oro har, idazkera espezializatua lantzeko beharra sentitzen duten guztiak. Guztira **8 ordu** izango dira, bi goizetan banatuta, 09:30ean hasita.



Ikastaro hau antolatu da jarraituta HUHEZIKo **Euskara Planak** proposatutako hizkuntza formazioari, eta helburu bikoitza du: gogoeta egitea idazkuntza akademikoaren gainean eta zenbait estrategia eta teknika lantzea komunikazioa hobetzeko. Hori lortze aldera, irakaslea oinarrituko da HUHEZIn idazten diren testu zientifikoetan.

### Egitaraua

1. Euskarazko prosaren egoera.
2. Idazkuntza akademikoaren eta teknolektoen ezaugarri nagusiak. Euskarazko idazkuntza akademikoaren egoera berezia, gure egoera soziolinguistiko bereziaren ondorio den aldetik.
3. Testu espezializatuen eta dibulgaziokoen arteko aldeak eta, adibide moduan, artikulu zientifikoaren egitura. Etorkizuneko artikulu zientifikoak eta Internet.
4. Prosa komunikatiboagoa egiteko estrategiak: idazten hasi aurreko lanak, lexikoa (bereziki terminologia), estilistika, joskera eta fraseologia, eta ortotipografia.